

Kuna-Co Proiektuak 2024rako OINARRIEN AGIRIA

BBK Kunak, Kuna Lab lerroan egiten ari den jarduketan esparruan, Kuna-co Proiektuak 2024rako oinarriak ezarri ditu

Edukia

1. TERMINOEN GLOSARIOA

2. SARRERA

3. KUNA-CO PROIEKTUAK 2024 PROGRAMAREN XEDEA

4. DEIALDIKO ERRONKAK

- 4.1. Hezkuntza eta desberdintasuna: eskolaz kanpo jarduerak
- 4.2. Migrazioa eta talentua: enplegu digitalak

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO ETA PROIEKTUAK HAUTATZEKO PROZESUA

- 5.1. Oinarriak argiltaratzea
- 5.2. Deialdia eragileei aurkeztea
- 5.3. LEHEN FASEA
 - 5.3.1. Proiektuen proposamen laburtu edo “One Page Project”ak aurkeztea
 - 5.3.2. Proposamen laburtuen aurre-hautaketa

BEHARREZKO BALDINTZAK

HAUTAZKO BALDINTZAK

ROLAK PARTZUERGOAN ETA FUNTZIOAK

ERAGILE-MOTAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

- 5.4. BIGARREN FASEA
 - 5.4.1. Hautatutako proposamen laburtuen garapen zehatza aurkeztea
- 5.5. Dokumentu-baldintzak
- 5.6. Proposamen zehatzen ebaluazioa
 - BALORAZIO-IRIZPIDEAK
- 5.7. Aurkezpen laburra edo “*PITCH DAY*”
- 5.8. Proiektu onuradunen hautaketa

6. GAUZATZEKO EPEA

7. FINANTZAKETA-BALDINTZAK

8. EBAZPENA

9. LANKIDETZA-HITZARMENA FORMALIZATZEA

10. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

11. AMAIERA

1. TERMINOEN GLOSARIOA

Agenda 2030: Nazio Batuetako kide diren estatuen konpromisotik sortutako ekintza-plana, eta bere helburu nagusia pertsonak, planeta eta oparotasuna babestea da. 2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 Helburu onartu zituzten Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren parte gisa, eta bertan plan bat ezarri zen 15 urtetan Helburu horiek lortzeko.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH): Garapen Jasangarrirako Helburuak guztiontzat etorkizun jasangarria lortzeko plan nagusia dira. Elkarren artean erlazionatzen dira eta barne hartzen dituzte egunero aurrean ditugun erronka globalak, hala nola pobrezia, desberdintasuna, klima, ingurumenaren degradazioa, oparotasuna, bakea eta justizia.

Gizarte-berrikuntza: Kudeatzeko, administratzeko eta egiteko modu berriak, tresna edo erreminta berriak, herritarren gizarte- eta bizi-baldintzak hobetzera bideratutako faktore-konbinazio berriak.

Helize Laukoitza (C4H): Berrikuntzaren lau ardatz nagusiren interakzio edo elkarrekintza ahalbidetzen duen berrikuntza-metodologia. Hau da, Unibertsitatea, enpresa pribatua, Administrazio Publikoa eta pertsona edo gizarte zibil antolatua. Talde-lana, lankidetzak eta ideien trukea sustatzen ditu, lau helizeetako eragileak integratuz. Ereduak aldatzea sustatzen du gero eta parte-hartzaileagoa den berrikuntza-ekosistema baten bidez.

Eragile anitzeko taldea: "Helize Laukoitz"eko bi helize edo gehiagotako eragileek osatutako lantaldea.

Ikerketa-ekintza: Ikerketa honen helburua da proiektuek teoria testatu edo probatzea ekintzan duten eraginkortasunaren arabera, ezagutza baliozkoa eta eragingarria sortzea bilatuz. Ikerketaren helburua ez da errealitatea aztertzea, aldatzea baizik. Ikertzaileen eta parte-hartzaileen artean garatzen den hausnarketa-prozesuak ezagutza berria sortzen du, eta lana eta metodoak sentiberak dira ikerketa-prozesuaren beharrezkoak.

BBK Kuna Institutua: BBK Kuna Institutua BBK Kunaren *Think Tank*-a da. Bizkaian datozen urteetan izango diren erronka estrategikoak identifikatzea eta lehenestea du helburu, baita hori egiten hasteko modurik onena zehaztea ere.

2. SARRERA

BILBAO BIZKAIA KUTXA Banku Fundazioa (aurrerantzean, BBK) konprometituta dago Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Konferentziak Rio de Janeiron, 2012an, onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuak (aurrerantzean, GJH) lortzearekin, bai eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2016an onartutako 2030 Agendarekin ere. Hori guztia BBKren Plan Estrategikoan jasotako hiru trantsizioen/erronken (sozioekonomikoa/digitala/ingurumenekoa) arabera.

Konpromiso hori gauzatea BBK Kuna abian jarrita: Garapen Jasangarrirako Helburuen Etxeak etengabeko hausnarketa-prozesu bat egitea ekarri du, bere *Think Tank*-a den “BBK Kuna Institutua”ren eskutik, eta hori identifikatu eta lehenesten dira Bizkaiko Lurraldeak aurre egin beharreko erronkak. Deialdi honek, hain zuzen ere, erronka horietako batzuei heldu gura die beren definizio zehatzenetan, eta inpaktu eta onura sozial handiena lortzera bideratuta.

Oinarri hauen xedea BBKren laguntza-deialdia arautzea da, GJHak lortzera bideratutako Berrikuntza Proiektuak finantzatzeko, konkurrentzia edo lehia publikoko prozedura bidez, publikotasunarekin eta aurkeztutako proposamenen merezimenduen balorazioarekin.

Horregatik guztiagatik, laguntza hauen bidez onuradun izan daitezkeen Berrikuntza Proiektuak aipatutako GJHetara bideratu beharko dira eta oinarri hauetako 4. puntuan azaldutako bi erronka zehatzetako bati erantzun beharko diote, helburu horiek lortzeko modu egingarri eta bideragarrian.

BBK-k konfiantza du Helize Laukoitz Korporazioaren (C4H) berrikuntza-metodologian, berrikuntzaren lau ardatz nagusiren —Unibertsitatea, enpresa pribatua, Administrazio Publikoa eta pertsona edo gizarte zibil antolatua— interakzio edo elkarrekintza ahalbidetzen duena.

Hori dela eta, laguntza hauen onuradun izan daitezkeen berrikuntza-proiektuak Helize Laukoitza deiturikoa osatzen duten erakundeek aurkeztu eta gidatu beharko dituzte, eta Partzuergo baten bidez antolatu beharko dute beren lankidetzak, hau da, beraien lankidetzak-borondateen akordioa izango da, konpromiso-agiri batean idatziz jasoa.

Gainera, gizarte-inpaktua eta proiektuek sortutako onurak maximizatzeko helburuaz, deialdiko proiektuen eta BBK Kunaren gainerako proiektu eta ekimenen arteko lotura bilatuko da.

3. KUNA-CO PROIEKTUAK 2024 PROGRAMAREN XEDEA

Kuna-co Proiektuak deialdia publikotasunarekin konkurrentzia edo lehia publikoan egiten den deialdia, 2030 Agendari lotutako erronkei irtenbideak bilatzen dizkiena Euskadin oro har eta Bizkaian bereziki, eta Bizkaiko lurraldean aldaketa eragiten dutenak.

Zehazki, **gizarte-berrikuntzako** proiektuak, deialdi honetan aurkeztutako bi erronketako bati erantzungo diotenak, finantzatu gura ditu BBK-k. Proiektuak **eragile anitzeko** taldeek aurkeztu beharko dituzte, eta aukeratutako **erronkari** heltzeko **lkerketa-ekintzako** proposamen bat aurkeztuko dute, gutxienez **ekintza** batekin emaitza gisa. Ekintza horrek proiektu pilotu **transferigarria**, **aplikagarria**, **erreplikagarria eta eskalagarria** izan beharko du. Deialdiaren bidez finantzatutako dira oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten eta diru-laguntzaren irabazle gisa hautatzen diren proiektuak.

Zer diru-laguntza jasotzen da proiektu bakoitzeko?

Deialdiak 150.000 euroko aurrekontua du, eta hautatutako proiektuen artean banatuko dira, proiektu bakoitzaren eskakizun ekonomikoaren arabera. Nolanahi ere, BBK-ko 3 ordezkari eta BBK Kuna Institutuko 2 ordezkari osatutako hautaketa-panelak erronka bakoitzeko proiektu bat edo gehiago aukeratzeko eskubidea izango du, baita proiektuen batek gutxienezko irizpideak betetzen ez baditu, horietakoren bat hutsik uzteko eskubidea ere. Gainera, partzuergoek BBK Kuna guneko 1. solairua erabili ahal izango dute bilerak egiteko, betiere zentroaren araudiari jarraituz eta baldintza hauekin:

- Laguntza jasotzen duen proiektuarekin zerikusia duten gaietarako soilik erabilitea.
- Ordutegia: asteleheneetik larunbatera 9:00etatik 21:00etara

BBK Kunako talde teknikoarekin alde zuzenetik adostuta eta gune bera behar izan dezaketen beste proiektu batzuen premien arabera.

4. DEIALDIKO ERRONKAK

lkerketa-ekintzako proiektuen bidez, erronka hauei erantzun behar zaie:

1.1. Hezkuntza eta desberdintasuna: eskolaz kanpoko jarduerak Hezkuntza doan eta libre eskura daiteke Bizkaian. Baldintza horren bidez, lurralde historikoan eskola-adinean dauden ume guztiek aukera berdina izatea bermatu behar da, gutxienez, hezkuntzarako irisgarritasunean. Berme hori eskola-ordutegia amaitzen denean bukatzen da. Une horretatik aurrera, desberdintasun sozioekonomikoak berriro agertzen dira ikastetxeetan: eskolaz kanpoko jarduerak hasten dira.

“Desheredados” (Save the Children. 2017) txostenak eskolaz kanpoko jardueretarako sarbide edo irisgarritasunean dagoen aldea azpimarratzen du, eta berebiziko garrantzia ematen die pobrezia murrizteko eta milaka familiari eragiten dien pobrezia-zirkulua etetea: “ikasgelatik kanpoko jardueretan lortzen diren trebetasun asko funtsezkoak dira etorkizuneko lan- eta gizarte-integrazioarako”.

Kultura edo kirolari lotutako trebetasunak garatzea funtsezkotzat jotzen da eskolarrakasta izateko eta etorkizunean hobeto ordaindutako enplegua lortzeko.

Erronka honek kultura- edo kirol-jarduera bat erabiliz, eskolaz kanpoko jardueretarako irisgarritasun-premia horiek identifikatzeko gai diren proiektuak bilatzen ditu, batez ere bazterketa-arriskuan dauden adingabe gisa identifikatutako haurren integrazioa hobetzeko benetako gaitasuna duen proiektu pilotu berritzaile bat proposatzen dutenak.

1 GJH (Pobreziaren amaiera) eta 4 (Kalitatezko hezkuntza)

1.2. Migrazioa eta talentua: enplegu digitalak

Gizarte- eta ekonomia-trantsizioek bat egiten dute erronka honetan esparru gisa, eta biekin lotutako proiektuak bilatzen dira. Alde batetik, egungo egoeran ekonomiaren geldialdiak gizartea pobretzea eragin du edo eragiten ari da, eta horrek politika publikoen iraunkortasunari kalte egin eta gizarte-desberdintasun handiagoak sortu ditzake. Gainera, desberdintasun-egoera horiek kolektibo ahul edo zaugarri eta zaurituei eragiten diete bereziki, hala nola migratzaileen kolektiboari. Egoera horren aurrean, etorkizunerako itxaropenak sortzea ahalbidetuko duen garapen-eredu bat behar da, belaunaldien arteko ongizatea bermatzeko eta gizarte homogeneoago eta desberdintasun gutxiagokorantz aurrera egiteko, batez ere sektore ahul edo zaugarriago horien artean.

Bestalde, Bizkaiko lurraldean talentua sortu, erakarri eta berton atxikitzeari buruzko kezka enpresek, erakundeek eta gizarteak partekatzen dute. Talentu disruptiboa etengabe bilatzen ari gara, aurrean ditugun beharrian aldakorrei (ingurune digital, zainketa, harreman-eredu berri eta abarri) erantzuteko gai izango dena.

Gaur egun, migrazio-ibilbideak pertsonen jatorriaren arabera sailkatzen dira, eta gure lurraldera iristen diren pertsonari eskaintzen dizkiegun egitura legal, sozial eta ekonomikoek ezarritako etiketak pairatzen dituzte. Horrela, talentua erakartzeaz hitz egiten dugunean, oro har, Europako herrialdeetako gazteei egiten diegu erreferentzia (guk ere horietara emigratzeko joera dugu, han trebatzeko eta geure lurraldera itzultzeko). Hori ez da egia beste jatorri batzuetako migratzaileen kasuan, batez ere EBtik kanpoko herrialdeetakoak direnean. Hori dela eta, beharrezkoa da talentuaren beharrezko birpentsatzea eta migrazio-ibilbide horiekin lotzen saiatzea, begirada migrazio-ibilbide zabalagoetara bideratuz pertsonen gaitasunak aprobetxatu ahal izateko.

Erronka honek migratzaileen trebetasun digitaletan sakontzea ardatz duten proiektuak bilatzen ditu, gero eta lehiakorragoa den lan-merkatuan sartzeko giltza bihur dadin hori. Planteamendu egokia eskatzen da talde horien enplegagarritasuna handitzeko eta lan-merkatuan eskaintzen diren enplegu berriak, erabat digitalak, lortzeko benetako gaitasuna izan dezaten.

1 GJH (Pobreziaren amaiera) eta 8 (Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa)

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO ETA PROIEKTUAK HAUTATZEKO PROZESUA

Kuna-co Proiektuak 2024rako proposamena aurkeztea BBKren webgunearen (www.bbk.eus) bidez egingo da, **BBK eta Zu** atarian. Zehazki **BBK Kuna** atalean.

BBK eta Zu atarian alta emanda egoteak aukera emango dizu egindako eskaera bakoitzaren egoera uneoro jakiteko. Beharrezkoa den dokumentazioa ere **BBK eta Zu** atari beraren bidez bidali beharko da. Edozein kontsultari 944 152 304 telefonoan erantzungo zaio.

Eskaera behar bezala betetzeko, "FORMULARIOA BETETZEKO GIDA" dokumentua irakurtzea gomendatzen da.

Proiektuak aurkezteak esan gura du Oinarrien Agiri hau baldintza barik onartzen dela, baita BBKren ebazpena ere, ezeztaezin edo atzera bota ezina izango dena.

Denbora-sekuentzia:

- 5.1. Oinarriak argitaratzea
- 5.2. Deialdia eragileei aurkeztea
- 5.3. LEHEN FASEA
 - 5.3.1. Proiektuen proposamen laburtuak edo "One Page Project" aurkeztea
 - 5.3.2. Proposamen laburtuen aurre-hautaketa
- 5.4. BIGARREN FASEA
 - 5.4.1. Aurrez hautatutako proposamen laburtuen garapen zehatza aurkeztea
- 5.5. Dokumentu-baldintzak
- 5.6. Proposamen zehatzen ebaluazioa
- 5.7. Aurkezpen laburra edo "PITCH DAY"
- 5.8. Proiektu onuradunen hautaketa

5.1. Oinarriak argitaratzea

Oinarri hauek 2024ko maiatzaren 20an argitaratu dira BBK Kunaren webgunean, "Kuna-co Proiektuak" atalean.

BBK eta Zu plataforman ere eskuragarri daude, honako dokumentazio honekin batera:

- Formularioa betetzeko gida
- Proiektuaren proposamen laburtu edo "One Page Project"en txantiloia
- Proiektuaren proposamena zehatz-mehatz garatzeko eredua (1. fasea gainditzen duten proiektuek bakarrik aurkeztu beharko dute)
- Erantzukizunpeko adierazpena (finantzatutako proiektuek bakarrik aurkeztu beharko dute)
- BBK kode etikoa (finantzatutako proiektuek bakarrik sinatu beharko dute)
- Elkar Ulertzeko Memorandumaren txantiloia (finantzatutako proiektuek bakarrik aurkeztu beharko dute)

- Txosten teknikoaren eredia (finantzatutako proiektuek bakarrik aurkeztu beharko dute, eta proiektua amaitutakoan egingo dute).
- BBK memoriak aurkezteko gida

5.2. Deialdia eragileei aurkeztea

BBK-k aukera izango du interesa duten eragileei bilera batera dei egiteko, oinarri hauek azaltzeko eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko.

5.3. LEHEN FASEA

5.3.1. Proiektuen proposamen laburtu edo "One Page Project"ak aurkeztea

Erakunde liderrak proposamen laburtu edo "One Page Project" aurkeztuko du **BBK eta Zu** atariaren bidez. Proiektuaren proposamenaren laburpen-dokumentu bat da, deialdi honetako erronketako bati erantzuten diona, eta dagokion txantiloian jasotako item hauek sartuko dira bertan:

- Erakunde liderra
- Aukeratutako erronka (Izena bakarrik)
- Proposatutako proiektuaren deskribapen laburra (sartu nahi dituen ikerketa-ekintza alderdiak, hasiera-data eta amaiera-data adieraziz)
- Partzuergorako proposatutako erakundeak
- Proiekturako eskatutako zenbatekoa

Formatua: BBK-k emandako txantiloiak erabiliz sartu beharko da informazioa. Proposamena **ezingo da bi orrialde baino luzeagoa** izan 11 tamainako testuan.

Dokumentazioa: fase honetan eskatutako dokumentazioa **BBK eta Zu** ataritik eta BBK Kuna webgunetik, "**Kuna-co Proiektuak**" atalean, jaitsi ahal izango da eta honako hau izango da:

• Proiektuaren proposamen laburtu edo "One Page Project" txantiloia

Azken eguna: Proiektuen proposamen laburtu edo "One Page Project"ak aurkezteko azken eguna **2024ko ekainaren 20a** izango da.

5.3.2. Proposamen laburtuen aurre-hautaketa

Proiektuen proposamen laburtu edo "One Page Project"ek baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

A.- Gizarte-berrikuntzaren esparruan kokatu beharko dira.

B.- Bizkaiko lurraldean egingo dira, erakundea Bizkaikoa izan ala ez.

C.- Bizkaiko lurraldean bizi diren pertsonen kolektiboak izango dira onuradunak. Gauzatze-eremua Bizkaiko lurraldea baino handiagoa den proiektuetan, lurraldeari eta bertan bizi direnei dagokien zatiaren finantzaketa baino ez da lagunduko.

D.- Ikerketa-ekintzako proiektuak proposatu beharko dira.

E.- Proposamenak hautatutako gaiari buruzko ikerketa jaso beharko du, eta aplikazio praktiko ukigarriko emaitza bat bermatu beharko da, transferigarria, aplikagarria,

erreplikagarria eta eskalagarria izango dena. Ondorio praktikoetarako, proiektu pilotutzat hartu behar da ekintza hori.

F.- Titulu esplizitu bat izan beharko du, eta deialdi honetan ezarritako formatuan aurkeztu beharko da.

G.- Ezingo da erakunde proposatzaileetako baten ohiko jarduera izan, ezta dagoeneko martxan dagoen proiektu bat ere.

H.- Proposamena eragile anitzeko talde batek aurkeztuko du, partzuergoaren formulapean. Proposatutako ikerketa-ekintza gauzatzen lagunduko duen talde bat izango da.

I.- Erakundeetako batek gidatuko du partzuergoa ('koordinatzailea' izeneko erakundea). Partzuergo horrek zehaztu beharko du zein erakundek gidatzen duen proiektua, eta adierazi beharko du erakunde horretako nor izango den ordezkaria. Erakunde hori eta bere ordezkaria izango dira partzuergoaren eta BBKren arteko harreman-gune nagusia.

J.- Erakunde liderrak/koordinatzaileak irabazi asmo bakoa izan beharko du.

K.- Partzuergoa Helize Laukoitzeko ordezkari bik osatu behar dute gutxienez, bakoitza izaera desberdinekoa: unibertsitatea, enpresa, administrazio publikoa edo sozietate zibila. Erakunde koordinatzaileari laguntzeko behar den gutxieneko eragilea erakunde parte-hartzaile bat izango da.

Aurreko baldintzetako edozein ez betetzeak proposamena automatikoki baliogabetzea ekarriko du.

HAUTAZKO BALDINTZAK

A.- Erakunde liderrak/koordinatzaileak eta erakunde parte-hartzaileak osatutako partzuergo minimoari Helize Laukoitzaren lau berrikuntza-ardatzetako **beste erakunde batzuk** gehitu ahal izango zaizkio, eta helize desberdinetakoa izatea baloratuko da.

B.- Proiektuan **erakunde elkartuek** parte hartu ahal izango dute.

ROLAK PARTZUERGOAN ETA FUNTZIOAK

Jarraian, eragile-modalitateak zehaztu edo definitzen dira, partzuergoan duten rolari eta funtzio edo eginkizunei dagokienez:

- **Erakunde koordinatzailea:** partzuergoaren buru edo lider den erakunde parte-hartzailea.

Funtzioak:

a) Proposamenaren aurkezpena zentralizatuko du eta entitate onuradunei eskatzen zaien dokumentazioa bilduko du.

b) Baterako Lan Plana diseinatuko du, gainerako erakundeekin laguntzarekin.

c) Proiektuaren koordinazio orokorrak, kudeaketak eta inplementazioak arduratuko da.

BBK 2024 Proiektuetarako Oinarrien Agiria.

d) Partzuergoan komunikazioaren kalitatea ziurtatuko du, erakunde onuradunen eta BBKren arteko komunikazio guztien bitartekari gisa jardunez. Halaber, BBKrekin izandako edozein komunikazio garrantzitsuren berri emango die erakundeei.

e) Proiektua behar bezala inplementatzeari eragin diezaiokeen edozein gertaera edo egoeraren berri emango die erakunde parte-hartzaileei eta BBKri.

f) BBK Kuna Institutuko Adituen Kontseiluko kideekin proiektuaren koordinazio- eta jarraipen-bileretan parte hartuko du.

g) BBK-k emandako laguntza ekonomikoa jasoko du eta, BBKrekin adostutakoaren arabera, bidezko banaketa egingo du partzuergo honetako erakunde parte-hartzaileen artean.

h) Erakunde parte-hartzaileei ordainketak egin zaizkiela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du.

i) Inplementazioa gainbegiratu eta proiektua ebaluatuko du.

j) BBK-k eskatutako dokumentazioa aurkeztuko du proiektua amaitzean (besteak beste, proiektua justifikatzeko memoria ekonomikoa eta proiektuaren laburpena, BBK Kunaren webgunean partekatu ahal izango dena).

- **Erakunde parte-hartzailea:** partzuergoa osatzen duten eta proiektuan zuzenean parte hartzeagatik finantzaketa jasoko duten erakundeak dira.

Funtzioak:

a) Lan Planean deskribatutako ataza edo eginkizunak inplementatzeko eta gauzatzeko ardura izango du.

b) Proiektuan ezarritako helburua lortzeko beharrezkoak diren langileak eta baliabideak jarriko ditu.

c) Erakunde koordinatzaileak eskatutako informazioa emango du ezarritako epeetan, aurrerapenen berri emateko erakunde finantzatzaileari.

d) Proiektuaren justifikazio finantzario eta teknikorako behar den informazioa emango du.

e) Proiektuaren ezarpenari nabarmen eragin edo atzeratu dezakeen edozein gertaera edo inguruabarren berri emango dio erakunde koordinatzaileari, baita beste aldaketa garrantzitsu batzuen berri ere (harremanetarako pertsona, aurreikusitako gastu-aldaketak, helbide-aldaketa, etab.).

- **Erakunde elkartua:** gaiarekin lotutako erakundeak, jardueretakoren batean parte hartzeko interesa adierazi edo proiektuaren emaitzetan interesa agertu dutenak. Ez dira partzuergoaren partetzat hartuko, eta ez dira ere proiektuaren finantzaketaren hartzaile izango.

Funtzioak:

a) Proiektuari babesa adieraziko dio motibazio-gutunen bidez, eta proiektu-proposamena bidaltzean erantsiko dira gutun horiek.

b) Proiektuaren jardueren eta emaitzen berri emango zaio.

AGENTE EDO ERAGILE-MOTAK

Jarraian, eragile-tipologiak definitzen dira beraien izaeraren arabera (Helize Laukoitza):

- 1.- **Gizarte zibileko/hirugarren sektoreko erakundeak**, eta horien artean egon daitezke fundazioak, elkarteak, onura publikoko eta gizarte-ekimeneko kooperatibak, gizarte-ekintzako irabazi-asmorik gabeko erakundeak, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak, laneratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak.
- 2.- **Enpresa pribatuak**: horien artean daude SL, SA, kooperatibak, etab.
- 3.- **Unibertsitateak edo ikerketa-zentroak**.
- 4.- **Administrazio publikoko erakundeak**.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Proiektuen proposamen laburtuak aurkezteko epea amaitu ostean, proposamenak eta goian deskribatutako beharrezko baldintzak betetzen dituztenak aztertuko ditu BBK-k, eta hurrengo fasera igartzeko baloratuko dira, honako hauek kontuan izanda: (1) **aukeratutako erronkarekin eta dagozkien GJHeekin duten lotura**, (2) **izaera berritzailea** eta (3) **gizarte-inpaktua**.

Hautaketa-panela 5 kidek osatuko dute, BBK-ko eta BBK Kuna Institutuko ordezkariak; eztabaidatzeko bilduko dira, eta proiektuak aztertuko dituzte, 0tik 5era puntuatu eta, lortutako puntuazioaren arabera, proiektu irabazleak hautatuko dituzte. Panel honek proiektua aurkezten duen erakundearekin harremanetan jartzeko eskubidea izango du, aurkeztutako ideia sakonago ezagutzeko.

Proiektuaren proposamen laburtua onartu den ala ez jakiteko informazioa jasoko dute erakundeek **BBK eta Zu** atariaren bidez, bai eta emandako posta elektronikoen bidez ere.

5.4. BIGARREN FASEA

5.4.1. Hautatutako proposamen laburtuen garapen zehatza aurkeztea

1. FASEAN aurre-hautatutako proiektuek aurkeztutako "One Page Project"aren araberrako **proiektu-proposamenaren garapen zehatza** aurkeztu beharko dute, baita eskatutako dokumentazioa ere. BBK-k proposamenean aldaketak egiteko aukera izango du, eta aldaketa horiek sartu egin beharko dira, ahal den guztietan.

Formatua: Eskatutako informazioa **BBK eta Zu** atarian txertatu beharko da, baita BBK-k fase honetarako emandako txantiloietan ere.

BBK eta Zu atarian eskaera bete ostean, formularioaren azken orrialdean "**Dokumentazioa**" atala dago. Atal horretan, goitibeherako menuan, eskatzen diren dokumentuen zerrenda irekiko da. Dagozkion dokumentua hautatu beharko dute erabiltzaileek beren gailutik, eransteko eta eskaeran erregistratuta geratzeko.

Izena emateko aldiari, erantsitako dokumentazioa aldatu ahal izango da, kontuan izanda erantsitako dokumentu berri bakoitzak aurreko dokumentua ordezkatzeko duela.

Dokumentazioa: fase honetan eskatutako dokumentazioa **BBK eta Zu** ataritik eta BBK Kuna webgunetik jaitsi ahal izango da, "**Kuna-co Proiektuak**" atalean, eta honako hau izango da:

- Proiektu-proposamena zehatz-mehatz garatzeko eredua**
- Erantzukizunpeko adierazpena**

Data: 2. Fasean proposamenak aurkezteko azken eguna **2024ko irailaren 23a** izango da.

5.5. Dokumentu-baldintzak

Aurkeztutako proiektuek dokumentu-baldintza hauek bete beharko dituzte:

A.- Partzuergoko erakunde parte-hartzaile guztiek:

- a) Legez eraturik eta dagokion erregistroan inskribaturik egon behar dute.
- b) Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuta izan behar dituzte.

B.- Erakunde liderrak/koordinatzaileak Kutxabanken banku-kontu bat izatea eskatuko da, eta bertan sartuko da proiektua gauzatzeko jasoko den zenbatekoa.

C.- Partzuergoan parte hartzen duten erakundeek, baldin eta proiektuak finantzatzeko BBKren aurretiazko deialdietan parte hartu badute, aurreko urteetan emandako laguntzen justifikazioak onartuta izan beharko dituzte. Salbuespen gisa, kanpoan geratuko dira 2023. urtea baino lehenagoko proiektuak justifikatu gabe dituzten erakundeak.

Aurreko baldintza horietako edozein ez betetzeak proposamena automatikoki baliogabetzea ekarriko du.

5.6. Proposamen zehatzen ebaluazioa

Aurkeztu dituzten eta Oinarri hauetan adierazitako dokumentu-baldintzak betetzen dituzten proiektuak BBKren eta BBK Kuna Institutuaren ordezkariak osatutako hautaketa-panel batek ebaluatuko ditu, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Oinarrien Agiri honetan aipatzen diren laguntzak eskatzen dituzten proiektuek, 5.3.2 puntuko ezinbesteko baldintzak bete badituzte, honako kontzeptu eta ehuneko hauen arabera baloratuko dira.

Jardueren egutegia (ezinbesteko baldintza)
Aurrekontu zehaztua (ezinbesteko baldintza)

Erronkarekin eta GJHeekin bat etortzea (% 25)

Proiektuak modu objektiboan frogatu beharko du deialdian identifikatutako erronketako batekin, gutxienez, duen lotura. Deialdiaren erronka edo erronkekin, 2030 Agendarekin, GJHen xedeeekin eta Bizkairako proposatzen diren konponbideekin proiektua bat datorrela justifikatuko da.

Izaera berritzailea (% 20)

Planteatutako erronkari emandako erantzunak berritzailea izan beharko du ikuspegi sozialetik, teknologikotik, prozedura aldetik... Deialdiak ideia berritzaileak,

planteatutako beharrianari beste begirada bat emango diotenak eta ohiko eskemetatik ateratzen direnak, finantzatu nahi ditu.

Gizarte-eragina, erreplikagarritasuna eta eskalagarritasuna (% 20)

KUNA-co Proiektuak 2023 deialdiaren helburua da proiektuek Bizkaiko erronka sozioekonomiko nagusiei praktikan aurre egiten lagun diezaietela. Finantzaketa lortzeko, proiektuak *ex ante* frogatu beharko du Bizkaiko lurraldeko erronka sozioekonomiko bati aurre egiteko gaitasuna duela, deialdian identifikatutako GJHetako bat gutxienez lortzeko bere ekarpena ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleekin.

Proposamen guztiek zehaztu beharko dute proiektuaren orientazio praktikoaren irismena (aplikagarritasuna), eta esku-hartze praktiko hori agerian uzteko eta egiaztatzeko moduak proposatu beharko dituzte, emaitzak neurtzeari dagokionez¹. Era berean, proiektua beste testuinguru, ingurune edo arlo batzuetan erreplikatzeko eta eskalatzeko aukera baloratuko da.

Komunikazioa, zabalkundea eta ustiapen publikoa (% 15)

Komunikazio-, zabalkunde- eta ustiapen-plan bat aurkeztu beharko da, interesa izan dezaketen/onuradun izan daitezkeen/proiektuari ekarpena egin nahi lioketen lurraldeko beste eragile batzuekin konektatzeko eta haiekin elkarri eragiteko. Komunikazio-plana gizartearekiko elkarriketa gisa planteatu beharko da, horretarako proiektu bakoitzak egokitzat jotzen dituen tresnak erabiliz, BBK-k Kuna-co Proiektuak markari eta logotipoen erabilerari buruz planteatutako jarraibideen esparruan, besteak beste. Planak honako ekintza hauek jaso beharko ditu:

Sozializazioa: Proiektu osoan zehar gertatzen da, eta bere helburua da lantzen ari den erronkari buruzko kontzientzia sortzea eta garatzen diren jardueren berri ematea (abian jartzea, tailerrak ...). Proiektua ikusarazten du eta hainbat eragileren arteko elkarriketa sortzen du lantze-prozesuan dagoen gizarte-erronkari buruz.

Zabalkundea: Proiektuaren jardueren emaitzak ezagutarazten ditu proiektuaren bizitzan zehar (tailer baten emaitzak, beste eragile batzuekiko elkarriketa, argitalpenak) eta proiektuaren amaieran.

Bi kasuetan (sozializazioa eta zabalkundea), BBK Kunako lantaldeak proiektuen zerbitzura jartzen dituen komunikazio-gune eta -tresnak erabili ahal izango dituzte proiektuek, deialdia egiteko eta gizartearekin konektatzeko duten gaitasuna aprobeztatuz.

Ustiapena: proiektuaren bizitzaz haratago, bere emaitzaren erabilera (zelan eta nork) zehazten du, eta proiektuaren etorkizuneko erreplika- eta/edo eskalagarritasun-aukera (*handbook, toolkit, aplikazioa, metodologia...*).

Komunikazio-, zabalkunde- eta ustiapen-plan bat aurkeztu beharko da, interesa izan dezaketen/onuradun izan daitezkeen/proiektuari ekarpena egin nahi lioketen lurraldeko beste agente edo eragile batzuekin konektatzeko eta haiekin elkarri eragiteko. Komunikazio-plana gizartearekiko elkarriketa gisa planteatu beharko da, eta, horretarako, egokitzat jotzen diren kanalak erabiliko dira komunikazio eraginkorra

¹ Proposamenak aurkezteko prozesuan bildutako informazioaz gain, aukeratutako proiektuek BBKren inpaktutaldearekin lan egingo dute, haien eragin soziala neurtzeko berariazko metrikak zehazteko.

lortzeko (masa-komunikabideak, ekitaldiak/jardunaldiak antolatzea, sare sozialak... edo beste batzuk).

Finantzaketaren iraunkortasuna (% 10)

BBK-k diruz lagunduko du proiektua dela-eta sortzen diren gastuen zatia, behar bezala justifikatuta. Positiboki baloratuko da, proiektuaren xedearen iraunkortasuna bermatzeko, finantzaketa izatea, xede horretaz harago. Proposamenean finantzaketa propioa edo kanpoko, proiektuarekin lotutako etorkizuneko jarduerak garatzeko proiektuko bazkideek lortu dutena, sartu behar da.

Eragile anitzen lankidetzatza (% 10)

Partzuergoa Helize Laukoitzaren ordezkari diren **bi eragilek gutxienez** osatu behar dute, bakoitza izaera desberdinekoa izanik: unibertsitatea, enpresa, administrazio publikoa edo sozietate zibil antolatua.

Positiboki balioetsiko da partzuergoak izaera desberdineko 3 eragile edo gehiago izatea.

BBKren beste proiektu batzuekiko konexioa (% 5)

BBKren proiektuen artean sor daitezkeen sinergiak modu positiboan baloratuko dira, eta horietako gehienak hemen agertzen dira: <https://www.bbk.eus/es/>

Zeharkako alderdiak (%5)

Proiektuan ingurumen-inpaktua, genero-berdintasuna eta bi hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelaniaren) erabilera lantzeko neurriak hartuko dira.

Proiektu bakoitzerako, adierazitako baldintza edo eskakizunak betetzea baloratuko da, ondorengo taulan adierazten diren balorazio-irizpideen arabera:

Irizpideak	Puntuazioa
GJHekin bat etortzea*	25
Finantza-jasangarritasuna	10
Eragile anitzen lankidetzatza	10
Izaera berritzailea	20
Gizarte-eragina	20
Komunikazioa eta zabalkundea	15
BBK proiektuekin konexioa	5
Zeharkako alderdiak	5
GEHIENEZKO GUZTIZKOA	110 puntu

*Edozelan ere, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira deialdi honetako 4. atalean: "GJHekin bat etortzea". Gutxieneko puntuazioa (70 puntu) lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira beste izapide barik.

5.7. Aurkezpen laburra edo "PITCH DAY"

Ebaluazio-prozesuan, 1. FASEA gainditu duen erronka bakoitzeko gehienez 4 proiektu deituko ditu BBK-k posta elektronikoz aurkezpen bat egitera, eta aurkezpen horretan beren proiektua "pitch" formatuan (gehienez 10 minutuko iraupenaz) azalduko diote

hautaketa-panelari. Hori **2024ko irailaren 24an** izango da, **BBK Kunan (Urazurrutia 3, 48003, Bilbo)**.

Posta elektronikoko bidezko banakako komunikazioaz gain, BBK-k bere webgunean argitaratuko ditu Pitch Day faserako hautatutako proiektuak.

5.8. Proiektu onuradunen hautaketa

Hautaketa-panelak, "*Pitch Day*" egunean proiektuen azalpena entzun eta hautaketa-irizpideak aplikatu ostean, dirulaguntza jasoko duten proiektuen azken hautaketa egingo du.

6. GAUZATZEKO EPEA

Laguntza hauek jaso ditzaketen proiektuak 2024ko abenduaren 1a baino lehen hasi beharko dira.

Proiektuaren iraupena, BBKren laguntzak eskatzen direneko fasean, gehienez ere 12 hilabetekoa izango da proiektuaren hasieratik aurrera.

7. FINANTZAKETA-BALDINTZAK

Aurkeztutako proiektuari egotz dakizkiokeen zuzeneko gastuak

Proiektua hautatzen bada, partzuergo onuradunei esleitutako zuzkidura ekonomiko edo diru-hornidura proiektua gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko erabiliko da, eta proiektua garatzeko beharrezkoa dela argi eta garbi azaldu beharko da.

Oro har, emandako zenbatekoak ezingo du proiektuaren kostu osoaren % 80 gainditu. Erakundeak konpromisoa hartzen du, aurkeztutako aurrekontuaren arabera, Proiektuaren kostu osoaren % 20 gutxienez jartzeko (funts propio, autofinantzaketa, diru-laguntza edo bestelako diru-iturrien bidez), emandako laguntzaren zenbatekoa edozein dela ere.

Edozelan ere, azkenean benetan egindako gastuak hasieran aurrekontuan jasotakoak baino txikiagoak baldin badira, alde edo diferentzia horren proportzioan kenduko da diru-laguntzatik.

Sinatzen den hitzarmena indarrean dagoen bitartean garatuko da proiektua. Edozelan ere, ezingo dira egotzi 2024ko maiatzaren 2a baino lehenagoko gastuak, ezta diruz lagundutako denboraldia amaitu ostekoak ere.

Esleituriko kopuruaren ordainketa, oro har, honela egingo da: laguntzaren % 80 Lankidetzaren Hitzarmena sinatzerakoan eta gainerako % 20 proiektua amaitzean, aurrez kontuak eman ostean.

Proiektuaren zeharkako gastuak

Kudeaketa- eta administrazio-gastuak (garraioak, jarduerarekin lotutako aseguru-primak, banku-zerbitzuak, zergak, telefonoa, argia, ura, etab.), proiektuaren asmatze-gastuak barne, ezingo dira proiektuaren aurrekontu osoaren % 10 baino handiagoak izan, ezta, hala badagokio, aipatutako proiektuari BBK-k esleitutako zuzkidura ekonomikoaren % 10 baino handiagoak ere.

Oro har, honako gastu hauek ezingo dira eskatu laguntza gisa:

• **Partzuergo eskatzailearen parte diren erakundeen ohiko egoitzaren mantentze-lanek** sortutakoak.

• Proiektuaren ardura duen lantaldearen **dietai, egonaldiei eta bidaiei** egoztekoak. Hala ere, debeku horretatik kanpo geratuko dira proiektua gauzatzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, betiere BBKren iritziz arrazoizkoak badira. Kasu horretan, era horretako gastuak lagundu ahal izango dira, baldin eta, oro har, ez badute gainditzen egozten zaion proiektuari emandako laguntzaren zenbateko osoaren % 25.

BBK-k egindako ekarpen ekonomikoa ezingo da erabili, ezelan ere, zorrak ordaintzeko, ezta inolako finantza-eragiketak amortizatzeko ere. Era berean, ezingo dira laguntza-funtsekin finantzatu erakunde onuradunaren ordezkarien eta gobernu-organotako kideen ordainsariak, ezta egoera horretan egindako jardueren sorturiko gastuak ere.

BBK-k erakundeari emandako beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza hauek bateragarriak izango dira partzuergoak jasotako beste edozein diru-laguntzarekin, baldin eta diru-laguntza horiek ez badute Proiektuaren eta/edo erakundearen gainfinantzaketa sortzen.

Erakundeak BBKren beste ekarpen batzuk jasotzen baditu, honako hauek aztertuko dira:

- Administrazio- eta kudeaketa-gastuetara bideratutako zenbatekoak ez gainditzea zenbateko handieneko proiektuaren aurrekontuaren % 10.

- Egitura-gastuetara (pertsonek, alokairuak, etab.) bideratutako zenbatekoek ez eragitea erakundearen gainfinantzaketarik, edozelan ere, BBK-k egiten dituen egiaztapen- eta kontrol-jarduketan mende egongo delarik.

Hirugarrenek erakundeari emandako beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Laguntza horiek bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzekin, edozein Administrazio Publiko edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatuko edo nazioartekotik, datozela ere, baldin eta erakundeak bere eskaeran adierazten badu funts horiek zenbatekoak diren eta proiektuko jardueretara aplikatuko direla.

Oro har, BBK-k finantzatutako proiektuak ezingo dira beste finantza-erakunde edo banku-fundazio batekin batera finantzatuta egon, BBK-k berariaz eta idatziz horretarako baimena eman ezean. Horregatik, BBK-k diru-laguntza eman eta gero, erakunde onuradunak berehala jakinaraziko dio BBKri helburu bererako emandako beste diru-laguntza edo beste laguntzarik jasotzen badu, edozein administrazio publikotatik edo estatuko edo nazioarteko erakunde publiko edo pribatutatik datorrela ere, baita laguntza horien zenbatekoa eta funts horiek diruz lagundutako jardueretan erabiliko direla ere.

8. EBAZPENA

BBK-k ebatzi eta dagokion ebazpena erakunde liderrari/koordinatzaileari jakinaraziko dio, deialdia ixten denetik hilabeteko epean (2. Fasearen itxierako azken data), horretarako emandako harremanetarako datuen bidez.

Ebazpena baiezkoa bada, behin-behinekoa izango da, eta, beraz, erakunde koordinatzaileak ez du eskubiderik izango ezer eskatzeko. Behin betiko ebazpenak baldintzatuko du, eta hori Oinarrien Agiri honetako 9. klausulan zehaztutako dokumentazioa BBK-k egiaztatu ostean emango da.

Era berean, hitzarmena sinatu ostean proiektuaren edozein aldaketa BBKri aurkeztu beharko zaio, onetsi dezan.

Oinarri hauek betetzea eska daitekeen gutxieneko baldintza bat da. Ezelan ere ez du esan gura aurkeztutako proiektuak hautatuko direnik. Beraz, BBK-k hartuko du, bere aldetik bakarrik, aurkeztutako proiektua hautatzeko edo ez hautatzeko erabakia.

9. LANKIDETZA-HITZARMENA FORMALIZATZEA

Partzuergoaren eta BBKren arteko lankidetzaren BBKren eta partzuergoko erakunde liderraren/koordinatzailearen artean dagokion Lankidetzaren Hitzarmena sinatuz formalizatuko da, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta bertan bi aldeek eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira; besteak beste, proiektua gauzatzeko epea, laguntzaren zenbatekoa (Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta ez dagoena), ordaintzeko era eta proiektuaren jarraipena ere zehaztuko dira.

BBKtik jasotako laguntza guztiak Proiektuan adierazitako kostuak ordaintzera bideratzeko eta proiektua antolatze eta gauzatzeko erantzukizun osoa bere gain hartzea konprometitzen da erakunde koordinatzailea. Helburua betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edo diru-laguntza ematea eragin zuen jokabidea hartzeko betebeharra izango du. Era berean, diru-laguntza ematea eragin duten irizpide eta baldintzen arabera gauzatu du diruz lagundutako jarduera.

BBK-k bertan behera utzi ahal izango du, baita suntsiarazi ere, sinatutako lankidetzaren hitzarmena; horretarako, egiteke dauden ordainketak baliogabetu ahal izango ditu, eta, bere iritziz hala badagokio, lehendik egindakoak osorik edo zati batean itzultzeko eskatuko du, besteak beste, honako kasu hauetan:

Diru-laguntza lortu bada horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo eragotzi zezaketen baldintzak ezkutatu.

Erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak eta, laguntza emateagatik, erakunde horiek hartutako konpromisoak betetzen ez direnean. Ondorio horietarako, ez-betetze gisa hartuko da, besteak beste, hitzartutako bestelako gastu-kontzeptuetan erabiltzea laguntza, BBKren berariazko baimen barik.

Halaber, itzulketaren egokitasunaren ondorioetarako, ez-betetze gisa hartuko da, laguntzaren ordainketa epailearen agindu baten ondorioz atxiki denean, laguntzatik datozen kopuruen bahitura edo enbargoa dagoelako, edozein izanda ere horretarako arrazoia.

Oinarri hauetan xedatutakoaren ondorioetarako, gainfinantzaketa gertatzen bada.

□ Kontabilitate-, erregistro- edo dokumentuen kontserbazio-betebeharren ez-betetzea, horren ondorioz ezinezkoa bada egiaztatzea BBKtik jasotako laguntzari emandako erabilera, eta proiektuko jardueren helburua, errealitatea eta erregularatasuna bete diren edo ez.

Dokumentu hori formalizatu ahal izateko, beharrezkoa izango da, **proiektua onartu dela jakinarazten denetik 15 eguneko epean**, BBK Kuna webguneko **BBK eta Zu** atariaren bidez, hautatutako partzuergoko erakunde liderrak/koordinatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztea (esteka hemen):

- Erakunde parte-hartzaileen **estatutuak**.
- Dagokien **erregistroan** erakunde parte-hartzaileen **inskripzio-ziurtagiria**.
- **Erakunde parte-hartzaileen identifikazio fiskaleko txartela**.
- Erakunde liderraren/koordinatzailearen legezko ordezkariaren **NANa**.
- Pertsona eskatzailearen **ordezkaritza-ahalordeak** edo, hala badagokio, karguaren izendapena, Estatutuen arabera horrek gaitzen badu erakunde liderraren/koordinatzailearen izenean jarduteko Erakunde liderraren/koordinatzailearen kontuaren **titulartasun-ziurtagiria**. **Partzuergoko erakunde parte-hartzaileen logoa**.
- **BBK kode etikoa**
- **Partzuergoa osatzen duten erakunde guztiek sinatutako Elkar Ulertzeko Memoranduma**.

Dokumentazioa: fase honetan eskatutako dokumentazioa **BBK eta Zu** ataritik eta BBK Kuna webgunetik jaitsi ahal izango da, **"Kuna-co Proiektuak"** atalean, eta honako hau izango da:

- **BBK kode etikoa**
- **Elkar Ulertzeko Memorandumaren Txantiloia**

Oro har, proiektuek amaitu aurretik hitzarmena sinatuta izan beharko dute, betiere **2025eko martxoaren 3a baino lehen**. BBKrekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik hitzarmena epe horretan sinatuko ez balitz, erakundeak aukera guztiak galduko lituzke onartutako laguntza jasotzeko.

Dokumentazioa aurkeztu ostean, egiaztatzen bada erakundeak ez dituela betetzen oinarrietan eskatutako baldintzak, behin-behinean onartutako laguntza ukatu egin ahal izango zaio.

10. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektua amaitu ostean, Lankidetzaren Hitzarmenaren dokumentuan jasoko den bezala, erakundeak proiektua gauzatu duela egiaztatu beharko dio BBKri, proiektua amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean.

Jasotako funtsen erabileraren frogagiriak, dokumentu elektronikoak barne, kontserbatu egingo ditu erakunde onuradunak, egiaztatze- eta kontrol-jarduketak egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurrian.

Zehazki, proiektua amaitu ostean, honako justifikazio hau aurkeztu beharko da **BBK eta Zu** atariaren bidez:

a) MEMORIA TEKNIKOA

“DOKUMENTAZIOA” atalean, “MEMORIA TEKNIKOA” dokumentua erantsi beharko da (bete beharreko eredua “2. Faserako BBK-K EMANDAKO DOKUMENTAZIOA” atalean dago).

b) “TXOSTEN EKONOMIKOA”

“MEMORIA EKONOMIKOA” atalean, Justifikazio Ekonomikoaren datuak eguneratu beharko dira. (Atal hau eskabidean emandako datuekin osatuta egongo da. Aurrekontuan jasotako informazio ekonomikoa proiektuaren benetako datu ekonomikoekin eguneratu beharko da, eta justifikazio-fakturen zerrendan oinarrituta egon beharko du).

c) “GIZARTE-ERAGIN EDO INPAKTU SOZIALAREN DATUAK”

Proiektuaren gizarte-eragin edo inpaktu sozialari buruzko datu errealak. (Atal hau eskabidean emandako datuekin osatuta egongo da. Datu errealak erabiliz aldatu beharko dira horiek).

d) “IKUSGAITASUN-EKINTZEN JUSTIFIKAZIOA”

“DOKUMENTAZIOA” atalean, “IKUSGAITASUN-EKINTZEN JUSTIFIKAZIOA”ren dossier bat erantsi beharko da. On-line eta off-line hedabideetan egindako zabalkunde-eta ikusgaitasun-jardueren froga grafikoak aurkeztuko dira, bai erakunde barneko jendearentzat izan diren hedabideetan, bai gizartearentzat oro har izan direnetan.

e) PROIEKTUAREN LABURPENA

“DOKUMENTAZIOA” atalean, “PROIEKTUAREN LABURPENA” dokumentua erantsi beharko da (bete beharreko eredua “2. Faserako BBK-k EMANDAKO DOKUMENTAZIOA” atalean dago). Dokumentu hori webgunean argitaratuko da, eta ezagutza partekagarriko ondare bat izan nahi du, proiektuaren alderdi esanguratsuenak eta proiektua gauzatzeak ekarri dituen ikaskuntzak jasoko dituen.

BBK-k beretzat gordetzen du proiektuak lortutako emaitzei buruzko informazioa edozein unetan eskatzeko eskubidea, proiektua gauzatzen den bitartean. Erakunde liderrak/laguntzaren koordinatzaileak konpromisoa hartzen du, BBK-k eskatzen badio, Proiektuari eta bere inbertsio eta gastuei buruzko beste edozein argibide edo agiri emateko, eta, hala badagokio, baita BBK-k Proiektuaz egin dezakeen auditoriari men egiteko ere.

Oinarrien Agiri honetan eskatzen diren baldintza edo betekizunetako edozein osorik edo zati batean betetzen ez dela egiaztatzen badu BBK-k, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatu ahal izango du, eta egoki iritzitako ekintza judizial guztiak gauzatzeko aukera gordeko du.

Salbuespen gisa, justifikazio-memoria aurreikusitako epean entregatzeko konpromisoa duten erakundeek luzapen bat eskatu ahal izango dute **BBK eta Zu** aplikazioaren bidez, dagozkion justifikazioak aurkeztuz. Edozelan ere, BBK-k erabakiko du luzapen-eskaera hori onartu ala ez.

Era berean, lankidetzeta-hitzarmenean proiektua betetzeari dagokionez beren gain hartutako betebeharrak betetzeko ezinduta aurkitzen diren erakundeek uko egitea eskatu ahal izango dute, eta, ondorioz, BBK-k aurrez ordaindu dizkien zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

Dokumentazioa: fase honetan eskatutako dokumentazioa **BBK eta Zu** ataritik eta BBK Kuna webgunetik jaitsi ahal izango da, "**Kuna-co Proiektuak**" atalean, eta honako hau izango da:

- **Memoria teknikoaren eredua**
- **BBK memoriak aurkezteko gida**

11. AMAIERA

Oinarrien Agiri honetan kontuan hartu bako zirkunstantziak edo gaiak BBKren irizpidearen arabera ebatziko dira, eta ezingo da helegiterik jarri bere erabakien kontra.

Aurreko edozein punturen interpretazioaz zalantzak edo desadostasunak egonez gero, BBKren irizpidea gailenduko da.